EBAZPENA, 2015EKO MAIATZAREN 27KOA, HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILEKO LANGILEEN KUDEAKETARAKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ ORDEZKAPENAK EGITEKO HAUTAGAIEN ZERRENDA IREKITZEN BAITA IRAKASLE ESPEZIALISTEN LANPOSTUETAN MODULU HAUEK EMATEKO: "AIRE ETA NITROX BIDEZKO ESKU-HARTZE HIPERBARIKOA", "INSTALAZIO ETA EKIPO HIPERBARIKOAK", "KONPONKETAK ETA BERRIZ FLOTARAZTEKO LANAK", "EBAKETA ETA SOLDADURA", "ERAIKUNTZA ETA OBRA HIDRAULIKOA" ETA "KANPAI HEZE BIDEZKO URPERATZEAK".

"Blas de Lezo" Pasaiako Itsas Arrantza BHIk "Urpeko Eragiketak eta Eragiketa Hiperbarikoak" Erdi Mailako Heziketa Zikloa eskaintzen du.

Hezkuntzaren Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 95.2. artikuluan xedaturikoaz bat, salbuespen moduan, jarduera lan-eremuan garatzen duten eta nahitaez tituludunak izan behar ez duten profesionalak hartu ahal izango dira modulu edo jakintzagai jakin batzuetarako irakasle espezialista gisa, pertsona horien kualifikazioa eta hezkuntza-sistemaren premiak kontuan hartuta.

Horiek horrela, eta aintzat hartuta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren 10. artikuluan ezarritakoa, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Ordezkapenak egiteko hautagaien zerrenda irekitzea, irakasle espezialisten lanpostuetan modulu hauek emateko "Blas de Lezo" Pasaiako Itsas Arrantza BHIn: "Aire eta nitrox bidezko esku-hartze hiperbarikoa", "Instalazio eta ekipo hiperbarikoak", "Konponketak eta berriz flotarazteko lanak", "Ebaketa eta soldadura", "Eraikuntza eta obra hidraulikoa" eta "Kanpai heze bidezko urperatzeak".

Bigarrena.- Lanpostuen konpetentzia-profila ebazpen honen I. Eranskinean zehaztuta dator.

Deialdi honetan, II. eranskinean aipatzen diren baldintzak betetzen dituzten hautagai guztiek izango dute parte hartzeko aukera.

Hirugarrena.- Honako leku hauetan aurkeztu ahal izango dituzte eskabideak hautagaiek: Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetan, Zuzenean zerbitzuan edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatuak) bere 38.4 artikuluan aipatutako edozein erregistrotan. Eskabideekin batera, eskatutako baldintzak betetzen dituztela eta alegatzen diren merezimenduak dituztela egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko dituzte (jatorrizko dokumentazioa edo behar bezala konpultsatua); horrekin batera, zin egin beharko dute, gainera, ez dituztela funtzio publikotik at utzi edo ez dituztela funtzio publikorako desgaitu.

Laugarrena.- Ez dira baloratuko eskaerarekin batera aurkezten ez diren merezimenduak, ez eta –aurkeztuta ere– behar bezala egiaztatzen ez direnak.

Bosgarrena.- Hauxe da eskabideak eta agiriak aurkezteko epea: 2015eko ekainaren 8tik 12ra, bi egunak barne.

Seigarrena.- Hautagaien merezimenduak deialdi honetako III. eranskinean jasotako baremoaren arabera neurtuko dira.

Baldintzak betetzen diren ala ez aztertzeko eta merezimenduak baloratzeko, batzorde bat sortuko da, zeina kide hauek osatuko baitute:

- Lanbide Heziketako zuzendaria edo haren ordezkoa.

- "Blas de Lezo" Pasaiako Itsas Arrantza BHIko zuzendaria edo haren ordezkoa.

- Langileen Kudeaketarako Zuzendaritzako teknikari bat, idazkari lanak egingo dituena.

Horretaz gain, batzordeak aholkulari/teknikari baten laguntza jaso ahal izango du (iragarritako ordezkapen-zerrendaren eremuan aditua den norbaitena).

Zazpigarrena.- Alegatutako merezimenduak barematzeko aldira pasatu ahal izateko, hautagaiek II. eranskinean aipatzen diren baldintzak bete beharko dituzte.

Zortzigarrena.- Puntuazioaren guztizkoan berdinketarik gertatuz gero, honela ebatziko da: baremoaren atal bakoitzeko puntuazio altuena aintzat hartuz, atalek baremoan duten hurrenkeraren arabera.

Bederatzigarrena.- Merezimenduak barematu eta gero, deialdiaren behin-behineko ebazpena jarriko da jendaurrean, Hezkuntzako lurralde ordezkaritzetako iragarki-tauletan eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren web orrian (http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net); bertan, onartutakoak, baztertutakoak eta hautagaiei emandako puntuazioa jasoko da, eta bost egun balioduneko epea hasiko da erreklamazioak egiteko.

Hamargarrena.- Aurkeztutako erreklamazioak aztertu ondoren, batzordeak Langileen Kudeaketarako zuzendariari helaraziko dio deialdi honen ebazpenari buruzko behin betiko proposamena, eta, horrekin batera, behin betiko akta edo aktak, hautagai bakoitzaren merezimenduei emandako balorazioak jasotzen dituztenak.

Langileen Kudeaketarako zuzendariak Ebazpena emango du behin betiko zerrenda argitaratzeko: onartuak, batetik (emandako puntuazioaren araberako hurrenkeran) eta baztertuak, bestetik. Zerrenda hori Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetako iragarki-tauletan eta Hezkuntzaren web orrian argitaratuko da.

Behin betiko ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, ebazpena argitaratu eta hilabeteko epean.

Hamaikagarrena.- Ebazpen honek arautzen ez duenari dagokionez, prozedura mailako aplikazio osagarri gisa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta

Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea erabiliko da, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua.

ERREKURTSOAK

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik aurrera, betiere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

LANGILEEN KUDEAKETARAKO ZUZENDARIA
KONRADO MUGERTZA URKIDI

Vitoria-Gasteiz, 2015eko maiatzaren 27a.

I. ERANSKINA
ESKUMEN-PROFILA:

166/2014 DEKRETUA, uztailaren 29koa, Urpeko Eragiketetako eta Eragiketa Hiperbarikoetako teknikariaren tituluari dagokion curriculuma ezartzen duena.

1073/2012 Errege-Dekretua, uztailaren 13koa, Urpeko Eragiketetako eta Eragiketa Hiperbarikoetako teknikariaren titulua sortu eta dagozkion gutxieneko irakaskuntzak ezartzen dituena.

Modulua: Aire eta nitrox bidezko esku-hartze hiperbarikoa.
Kodea: 0758
Modulua prestakuntza-zikloaren ondoko ezagupenak: a), b), c), d), e), j), k), r), s), t) eta u) eta tituluaren ondoko konpetentziak: a), b), c), d), h), ñ), o), p) eta q) lortzera bideratuta dago.

Modulua: Instalazio eta tresneria hiperbarikoak.
Kodea: 0759
Modulua prestakuntza-zikloaren ondoko ezagupenak: a), b), e), r), s) eta u) eta tituluaren ondoko konpetentziak: b), d), ñ), o), p) eta q) lortzera bideratuta dago.

Modulu profesionala: Konponketak eta berriz flotaraztea.
Kodea: 0760
Modulua prestakuntza-zikloaren ondoko ezagupenak: a), b), d), e), g), s) eta u) eta tituluaren ondoko konpetentziak: f), ñ), o), p) eta q) lortzera bideratuta dago.

Modulu profesionala: Ebaketa eta soldadura.
Kodea: 0761
Modulua prestakuntza-zikloaren ondoko ezagupenak: a), b), d), e), h), s) eta u) eta tituluaren ondoko konpetentziak: g), ñ), o), p) eta q) lortzera bideratuta dago.

Modulu profesionala: Eraikuntza eta obra hidraulikoak.
Kodea: 0762
Modulua prestakuntza-zikloaren ondoko ezagupenak: a), d), e), f), s) eta u) eta tituluaren ondoko konpetentziak: e), ñ), o), p) eta q) lortzera bideratuta dago.

Modulu profesionala: Kanpai hezearekin urperatzea.
Kodea: 1248
Modulua prestakuntza-zikloaren ondoko ezagupenak: a), b), d), e), i), j), k), q), r), t), u) eta w) eta tituluaren ondoko konpetentziak: a), b), c), d), h), i), n), ñ), o), p) eta q) lortzera bideratuta dago.

<u>EZAGUPENAK ondoko hauetan:</u>

a) Urperaketaren baldintzak aztertzea, urperatze-plana zehazteko orduan lortutako informazioa, egindako kalkuluak, urperatzeko behar den tresneria, kalitate-irizpideak eta segurtasun-arauak interpretatuz eta baloratuz.

b) Tresneria eta instalazioetan esku hartzea, anomaliak identifikatuz eta horiek mantentzeko dokumentazio teknikoa interpretatuz.

c) Urperatze-teknikak aplikatzea, aire eta/edo nitrox arnastuz, eta urperatzean organismoaren erantzuna nahiz ondorio fisiopatologikoak antzemanez.

d) Taldeko buruaren funtzioak antzematea, hark urperatzea gainbegiratu eta kontrolatzeko orduan dituen erantzukizunak identifikatuz.

e) Urpeko jarduerak eta jarduera hiperbarikoak garatzeko, gainbegiratze- eta kontrol-teknikak aplikatzea, betiere taldeko buruaren eskakizunei jarraiki.

f) Urpeko jardueretan eta giro hiperbarikoan tresneria eta materialak trebetasunez erabiltzea, horiekin lotutako teknikak aplikatuz eta segurtasun-arauak errespetatuz, betiere eraikuntza-lanak eta obra hidraulikoak egiteko helburuarekin.

g) Urpeko jardueretan eta giro hiperbarikoan tresneria eta materialak trebetasunez erabiltzea, horiekin lotutako teknikak aplikatuz eta segurtasun-arauak errespetatuz, betiere egiturak mantentzeko, konpontzeko eta berriz flotarazteko lanak egiteko helburuarekin.

h) Urpeko jardueretan eta giro hiperbarikoan eragiketak gauzatu ahal izateko ebaketa eta soldadurako tresneria, erremintak eta materialak hautatzea eta erabiltzea, kasuan kasuko teknikak eta prozedurak deskribatuz eta aplikatuz.

i) Urpekariari laguntzeko ebakuazio- eta larrialdi-planak interpretatzea, egoeraren baldintzak antzeman ostean.

j) Indarrean diren segurtasun-arauetan estandarizatutako eta araututako deskonpresio-parametroak errespetatzea eta aplikatzea, horretarako kontrol-sistemak erabiliz eta igotzean deskonpresio-protokoloak aplikatuz.

k) Igoera modu arduratsuan eta ahalik eta segurtasun handienarekin gauzatzeko, urperaketaren baldintzak aztertzea, betiere urpekaritza-ordenagailuek nahiz gainerako baliabide erabilgarriek eskainitako informazioa interpretatuz eta urpekaritzaren printzipio fisiopatologikoak kontuan hartuz.

q) Bizialdi osoko ikaskuntzarako dauden baliabideak, eta komunikazio- eta informazio-teknologiak aztertu eta erabiltzea; ikasteko eta ezagupenak eguneratzeko, hobekuntza profesional eta pertsonalerako aukerak antzemanda, eta hainbat egoera profesionaletara eta lanekoetara egokitzeko.

r) Talde-lanak garatzea eta haien antolamendua baloratzea, tolerantziaz eta errespetuz parte hartuz, eta erabaki kolektiboak edo bakarkakoak hartzea, erantzukizunez eta autonomiaz jarduteko.

s) Sormenezko irtenbideak hartu eta balioestea lan-prozesuak garatzean sortzen diren arazo eta gorabeheren aurrean, dagokion jardueran izaten diren gertakariak erantzukizunez ebazteko.

t) Komunikazio-teknikak aplikatzea, zabaldu beharreko edukietara, horien helburura eta hartzaileen ezaugarrietara egokituta; prozesuaren eraginkortasuna ziurtatzeko.

u) Lanbide-jarduerarekin lotutako ingurumen- eta lan-arriskuak aztertzea, eta horien sorburuekin lotzea, hartu beharreko prebentzio-neurriak oinarritzeko eta dagozkion

protokoloak aplikatzeko, nork bere buruari, inguruneari eta ingurumenari kalterik ez egitearren.

w) Ikasteko prozesuan lanaren kalitate-prozedurak eta erreferentziako produkzio-sektorearenak hobetzeko beharrezkoak diren teknikak aplikatzea eta aztertzea.

KONPETENTZIA ondoko hauetan:

a) Urperatze-plana definitzea, betiere aintzat hartuta urperatze segurua, efizientea eta kalitatezkoa egin ahal izateko lortutako informazioa eta egindako kalkuluak.

b) Jardueraren ekipoak eta instalazioak mantentzea, arauak betez eta, betiere, zehaztapen teknikoen arabera.

c) Indarrean dauden segurtasun-arauak uzten duten gehieneko presio eta sakoneraraino egitea jaitsiera, airea eta nitroxa erabiliz, ezarritako planaren arabera.

d) Urperatzea eta planta hiperbarikoa azaleratik gainbegiratzea eta kontrolatzea, ahal den neurrian langileen segurtasuna eta ezarritako plana bermatzeko.

e) Urpean nahiz inguru hiperbarikoan eraikuntza-lanak eta obra hidraulikoak egitea, betiere teknikak aplikatuz eskatzen den kalitatea, efizientzia eta segurtasuna aintzat hartuta.

f) Egiturak konpontzeko, ur gainean mantentzeko eta berriz flotarazteko lanak egitea, urpean nahiz inguru hiperbarikoan, eskatzen den kalitatea, efizientzia eta segurtasuna bermatuz.

g) Piezak soldatzeko eta ebakitzeko eragiketak egitea, urpean nahiz inguru hiperbarikoan, eskatzen den kalitatea, efizientzia eta segurtasuna bermatuz.

h) Igoera burutzea, uretan zein ganbera hiperbarikoan deskonpresio-protokoloak aplikatuz.

i) Istripua gertatzen bada urpekariari laguntzea, larrialdi- eta ebakuazio-plana aktibatuz.

n) Produkzio-prozesuetako aldaketa teknologikoen eta antolamendukoen ondoriozko lan-egoera berrietara egokitzea, «bizialdi osoko ikaskuntzarako» dauden baliabideak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabilita, jakintzak eguneratzeko.

ñ) Dagokion konpetentziaren esparruan erantzukizunez eta autonomiaz jardutea, eta esleitutako lana antolatzea eta garatzea, lan-ingurunean beste profesional batzuekin talde-lanean edo lankidetzan jardunez.

o) Bere jarduerari dagozkion gorabeherak arduraz konpontzea, horien sorburuak identifikatuz, bere konpetentziaren eta autonomiaren esparruan.

p) Eraginkortasunez komunikatzea, bere lanaren esparruan esku hartzen duten pertsonen autonomia eta konpetentzia errespetatuz.

q) Produkzio-prozesuan laneko arriskuen prebentziorako eta ingurumen-babeserako neurriak eta protokoloak aplikatzea, pertsonen, lan-ingurunearen eta ingurumenaren gaineko kalteak saihestearren.

II. ERANSKINA

BALDINTZAK

- Lanbide-titulu honen jabe izatea:

■ Urpekaritza-irakasle profesionala.

- 1. HE edo horren baliokidea izatea (*)

- 2 urteko lan-esperientzia izatea urpekaritza profesionalaren sektorearekin zerikusia duten arloetan, deialdi hau argitaratu aurreko lau urteetan.

(*) Eskatutako hizkuntza eskakizuna egiaztatuta ez dutenek ere parte har dezakete zerrenda honetan; izan ere, baldintza horiek betetzen dituen hautagairik ez badago, deitu egingo zaie.

III. ERANSKINA

BAREMOA: GEHIENEZKO PUNTUAZIOA: 19 PUNTU

LAN-ESPERIENTZIA (6 puntu, gehienez ere)		
Lan-esperientzia, urpekaritza profesionalaren sektorearekin zerikusia duten arloetan, baldintza gisa eskatzen denetik aparte.	Puntu 1 urteko	Enpresaren egiaztagiria eta Gizarte Segurantzaren lan-bizitzaren agiria
IRAKASKUNTZAKO MEREZIMENDUAK (4 puntu, gehienez ere)		
Urpekaritza profesionalarekin zerikusia duten arloetan irakaskuntzako esperientzia izatea	Puntu 1 urteko	Ikastetxearen zuzendariaren egiaztagiria eta Gizarte Segurantzaren lan-bizitzaren agiria
TITULUAK (puntu 1, gehienez ere)		
Diplomatura: Itsasontzi Makinak Itsas Nabigazioa Ontzigintzako Ingeniaritza Teknikoa. Espezialitatea: - Ontzietako propultsio eta zerbitzuak - Itsas egiturak. Lizentzia: Itsasontzi Makinak.	Puntu 1 titulazioko	**Titulua**

Nautika eta Itsas Garraioa. Ontzigintza eta Ozeano Ingeniaritza. Goi edo Erdi Mailako Teknikaria edo baliokidea: - Lanbide-arloa: Itsasoa eta arrantza Soldadura eta galdaragintzako teknikaria. Unibertsitateko Titulu Ofizialen Katalogoan aurrekoen baliokideak diren tituluak. Halaber, onartu egingo dira kasuan kasuko Graduko titulazio berriak.	0,5 puntu titulazioko	
EUSKARA (1,5 puntu, gehienez ere)		
Hizkuntzen Europako Erreferentzia-Esparru Bateratuaren C1 maila. Hizkuntzen Europako Erreferentzia-Esparru Bateratuaren C2 maila. (maila handiena duen egiaztagiria hartuko da kontuan).	1,25 puntu 1,50 puntu	Dagokion titulu eta/edo egiaztagiria
INGELESA (**1,5 puntu**, gehienez ere)		
Hizkuntzen Europako Erreferentzia-Esparru Bateratuaren B1 maila Hizkuntzen Europako Erreferentzia-Esparru Bateratuaren B2 maila Hizkuntzen Europako Erreferentzia-Esparru Bateratuaren C1 maila Hizkuntzen Europako Erreferentzia-Esparru Bateratuaren C2 maila (maila handiena duen egiaztagiria hartuko da kontuan).	0,75 puntu Puntu 1 1,25 puntu 1,50 puntu	Dagokion titulu eta/edo egiaztagiria
PRESTAKUNTZA (3 puntu, gehienez ere)		
Urpekaritza Profesionalarekin zerikusia duten espezialitateetan jasotako prestakuntza - 20 ordutik 70 ordura arteko ikastaro bakoitzeko - 71 ordu edo gehiagoko ikastaro bakoitzeko	0,10 puntu 0,20 puntu	Dagozkion titulu edo egiaztagiriak
Urpekaritza Profesionalarekin zerikusia duten espezialitateetan emandako prestakuntza - 20 ordutik 70 ordura arteko ikastaro bakoitzeko - 71 ordu edo gehiagoko ikastaro bakoitzeko	0,20 puntu 0,40 puntu	Egiaztagiria
PROIEKTUAK (2 puntu, gehienez ere)		
Urpekaritza Profesionalarekin zerikusia duten proiektuetan parte hartzea	0,50 puntu proiektuko	Egiaztagiria